

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

Katedralak erloju baten makineria gehitu dio bere ondareari


Elorriagako dorretik berreskuratutako eta Oscar Achaerandiok zaharberitutako XIX. mendeko erloju baten makineria katedralaren barruko toki berrian dago jada, eta bisiten programaren barruan ikus daiteke. XIX. mendearen bigarren erdialdean Santa Mariako kanpandorretik orduak ematen zituen makineria bera denik ziurtasun osoz ziurtatzerik ez dagoen arren, adituak bat datoz berreskuratutako pieza egile berak—Francisco de Paula Abaituak—egin zuela, estilo berarekin, eta garai berekoa dela, esaterakoan.

Elementu horren berreskuratzearen historia, lanbidez mekanikaria den eta antzinako objektuak zaharberitzeko zaletasuna duen Oscar Achaerandiorekin erlazionatuta dago. Bera bizi den Elorriagako Udalak, dorreko erloju zaharraren mantentze lanak egiteko enkargua eman zion—sei egunean behin mekanismoari eskuz eragin behar ziztaion—. Udalak 1921ean erosi zuen erlojua, eta oso hondatuta

zegoen. 2016an, Achaerandiok pieza erostea eta bere tailerrean zaharberitzea erabaki zuen.

Berreskuratze prozesua amaitu ondoren, eta erlojuaren jatorriari buruzko ikerketa-lan pertsonala egin eta gero, mekanismo hori, 1856tik 1880ko hamarkadara bitartean katedralako kanpandorretik Gasteizko herritarrei orduak eta laurdenak ematen zizkien bera izan zitekeela ondorioztatu zuen Achaerandiok. 1880ko hamarkadan makina modernoagoek ordezkatu zuten. Hori dela eta, Santa Maria Fundazioarekin jarri zen harremanetan, haren "itzulera" errazteko.

Piezaren jatorria era zientifikoan ziurtatzeko ezintasunetik haratago, Oscar Achaerandioren lanari esker, katedralerako bisitan beste elementu erakargarri bat gehitu ahal izan da, eta jada orduak emango ez dituen arren, mekanismo mota horien konplexutasuna eta edertasuna ezagutzeko balioko du.



Udalaren enkargua

Kanpandorreko dorretik orduak ematen zituen erlojua Udalaren enkargua izan zen, Gasteizi herritarrek asko baloratzen duten zerbitzu publikoa emateko.

Izan ere, oraindik gordetzen dira lehiaketan eskatutako zehaztapenak, eta hor sortzen dira zaharberitutako makineria jatorrian Katedrallean egon zen bera izan zela egiaztatzea eragozten duten zalantza batzuk. Udal erlojugileak diren Suescun familiaren arabera, aldea dago eskatutako diseinuaren eta pieza honen diseinuaren artean.



Aiztogile kaleko 103. zenbakiko eraikina, ekainerako prest

Aiztogile kaleko 103. zenbakiko eraikina egokitzeko lanek erritmo onean doaz eta ekainerako amaitzea aurreikusten da. Lanek Gasteizko Udalaren finantzaketa dute, eta beheko solairua eta goiko bi solairuk osatutako eraikin bat berreskuratzea ahalbidetuko dute; bertan, haurrentzako tailerrak eta aterpetxeko beste hainbat jarduera egingo dituzte.

Familei zuzendutako hurrengo bisitak

Familei zuzendutako hurrengo bisitak datozen egunetan izango dira:

Martxoak 14	17:00h	gaztelaniaz
Martxoak 28	17:00h	euskeraz
Apirilak 11, Aste Santua	17:30h	gaztelaniaz
Apirilak 14, Pazko-astea	17:30h	euskeraz
Apirilak 16, Pazko-astea	17:00h	gaztelaniaz

Katedrala, otsaileko zigiluan

Correosen 12 Hilabete, 12 Zigilu serieak Arabako lurraldeari eskaini dio otsaila, eta Katedralaren



presentzia nabarmena izan da. Irudian Arabako toponimoaren AR inzialak ikusten dira. Bertan, A Santa Maria kanpandorea da eta R ardo kopa bat, Arabako Errioxari eta Arabako Txakolinari erreferentzia eginez. Grafemen atzean Añanako Gatz Haraneko paisaia agertzen da, eta zigiluaren beheko bandaren kolore gorrimina lurraldeko bandaren kolorearekin dator bat.

Xehetasuna

Murillo edo Van Dyck

Berriak Triforiotik argitalpenaren aurreko zenbakian 1808ko uztailerako "la Gazeta de Madrid" egunkariaren erreferentzia jasotzen bazen, oraingoan, eta Patxi Viana historialariari esker, baita ere, 1882ko irailaren 22ko "El Globo" egunkariak, oraindik Kolegiata zenari eskaini zion azalaren berri ematen dugu. Bertan hau esaten da, hitzez hitz: "en cuya sacristia existe un hermoso cuadro de la Piedad, atribuido por unos a Van Dyck, por otros a Murillo". Informazio horrekin batera, nabearen barruko grabatu bat dago.



Arkitektura, Ondarea eta Berdintasuna

EHUko campuseko Micaela Portillo zentroak arkitektura arloan genero ikuspegia ikusarazteko bi saio egin ditu egunotan. Verónica Benedet arkitekturaren doktoreak Kultura Paisaiei eta Ondareari buruzko UNESCO Katedratik antolatuta, otsailaren 27an egin zen lehenengo topaketa, sektoreko hainbat profesionalen esperientzia pertsonalak biltzera egon zen bideratuta, eta horien artean Esperanza Estívariz, katedrala zaharberritzeko lanen arkitekto teknikoa, egon zen. Martxoaren 6an, berriz, jendeari irekitako jardunaldia egin zuten, Iñaki Arrieta ikertzailearekin eta Carolina Quiroga, Olatz Ocerin eta Verónica Benedet bera arkitektoekin.

